

JON ARRETXE

19 KAMERA



erein

19 KAMERA

9

uzta gorria

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honen argitalpenak Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioko laguntza izan du, Liburutegi Publikoetan utzi ahal izateko, Jabetza Intelektualaren Legearen 37.2 artikuluan aginduta dagoenaren arabera.



1. argitalpena: 2012ko maiatzean

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Azaleko modeloa:

Herve Zahui

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2012

ISBN: 978-84-9746-768-1

L. G.: SS-796/2012

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

JON ARRETXE

19 KAMERA

erein

*Aitor, Amparo, Ana, Ane, Angel, Arturo,
Borja, Carlos, Cosme, Cristina, Elena,
Fernando, Garbiñe, Gorka, Herve Zahui,
Iratxe, Javi, Juliet, Khalid, Leire, Maika,
Miguel Angel, Nahia, Patrizia, Patxi, Rafa,
Rosario, Santi, Susana, Thomas, Tito, Unai,
Zuriñe...*

*Nobela hau osatzen hainbeste lagundu
didaten adiskide sanfrantziskotarrei.*

1



Ezin nuen sinetsi. Begiak igurtzi nituen, ireki, itxi, betazalak gogor estutu eta berriro ireki nituen. Gero botilatxo erdi hustuari so egin nion, arratsaldeko lehenengo garagardoa baino ez zen esku artean neukana, eta zera pentsatu nuen, marihuanaren ondorioa izan behar zuela begitazio hark. Izan ere, astelehen hartako askaria, jakineko teaz gain, Osman pisukideari norbaitek oparitu zion mariaz hornitutako bizkotxo zati eder bat izan zen, eta haren eragina sentitzen hasita nengoen. Sentitzen hasita baino gehiago, nire buruaren barru-barruan neukan, nire gogoaz eta nire burmuinaz bizkor jabetzen ari zen. Kontuan hartu behar zen, baita, Mozoilo Baltza tabernaren barrualdea itzaltsu samarra zela, argitasun bakarra sabai baxuko lanpara gorri makalena zela. Edonola ere, zin egingo nuen nire

begiek ikusten zutena egiazkoa zela eta barraren osteko horma berde ilunean itsatsitako kartelak, eskuz eta letra okerraz idatzita egon arren, zera zioela: “*Supaldiak 2 eurotan*”.

Bilboko Gorte kaleko kobazulo hartan nitaz eta andre zerbitzariak gain, beste bezero bat baino ez zegoen: makina txanponjalean arreta erabat ipinita zeukan gizonzko txinatar bat, hipnotizatuta legez so egiten ziena etengabean jiraka ari ziren pantailako fruitu koloretsuei. Andreak bestelako jarrera zeukan; hark arduragabetasunez lehortzen zituen jada lehorturik zeuden edalontzi batzuk zapi zahar eta zulatu batez. Hirurogei urtetik gorako adina jo nion; azal zurbil bezain zimurra zeukan, eta bere buruan ile urdinuak nagusi ziren jatorriz horia zirudien adats luze eta ondo orraztu baten. Azken-aurreko zurrutada eman nion botilari, begiak igurtzi nituen hainbatgarrenez eta berriro so egin nion barra osteko kartelari, bista ondo fokatzeko ahaleginak eginez. Arazoa ez zen nire ikusmen nekatua, ez argi eskasia ez marihuanaren eragina. Han “*Supaldiak 2 eurotan*” ipintzen zuen, ez zegoen dudarik.

Garagardoa amaitu eta beste bat ateratzeko eskatu nion barrak bestaldeko atsoari. Bere zereginari desgogora utzi, nire aurrean paratu eta bekokiko zimurrak areago nabarmendu zizkion mesfidantza keinu bat oparitu zidan.

—Badaukazu zerekin ordaindu?

Haren ahoskera desatseginari erantzunez, joskurak hausten hasita zeuzkan diru-zorro ajatutik hamar euroko billete bat atera eta barra gainean ezarri nuen duintasunez, “atera beste bat eta kobratu biak” esateaz bat. Tentuz ibili nintzen, hala ere, andrea azken billetea zela konturatu ez zedin. Haren erantzuna hozkailua ireki eta beste botilatxo bat ateratzea izan zen. Jarraian hamar euroko billetea kutxan gorde eta ez zidan bueltarik eman.

–Ez zaitut sekula ikusi taberna honetan. Non bizi zara?

–Hor behean –esan nion–, San Frantzisko kalean.

–Noiztik?

–Duela pare bat urtetik hona –exajeratu nuen–. Zuk aspalditik lan egiten duzu hemen?

Tinko so egin zidan betazalek ia guztiz estaltzen zizkioten begiez. Emango nuen mindu egin zuela nire galderak.

–Taberna honen gaineko pisuan jaio nintzen –bota zidan, bizkarra tentetuz–, eta hemen egin dut lan betidanik, artean meategiak martxan zeuden sasoian hasita.

–Zer meategi?

Ez zidan erantzun. Eskuaz gogaimen keinua egin eta gaiz aldatu zuen, ahoskera mesfidatia berreskuratuz.

–Esan egia, zer arraio egiten duzu nire tabernan?

–Auzoa ondo ezagutu nahi dut. Azken baten, alboko kalean bizi naiz.

–Palankara andretan etortzen dira gizonezko guztiak, ez paseoan edo trago bat edaten, eta zuk jaramonik ere ez diezu egin losintxatan hasi zaizkizunei.

Kalerantz seinalatu zuen buruaz. Mozoilo Baltzaren sarreran, Gorte kaleko espaloietan zehar kokaturiko antzeko sasitabernen inguruan bezala, era guztietako prostitutak zeuden bezero zain, neska gazteak nahiz tabernaria bera baino zaharragoko atsoak, erratz bat bezain meharrak zirenak zein gantzek arropa estuak alde guztietatik gainezkatzen zizkietenak, azal zurikoak zein beltzaran edo beltz ilunekoak... Gauza bakarra zeukaten denek komunean: itxura miserable samarra. Edo-nola, haien laudorioei muzin egiteko arrazoi nagusia ez zen euren itxuraren txukuntasuna izan, nire sosik eza baizik, nahi izan arren ezingo bainuen merkeena ere ordaindu.

–Gaur ez daukat gogorik –erantzun nion–, agian beste egunen baten bai.

–Zelan ateratzen duzu bizimodua? –bota zidan artez, ahoskera garraztuz–. Ez zaizkit gameluak gustatzen, hailandaze horietarikoa bazara, hortxe daukazu atea.

Botilari zurrut egin nion patxadaz. Gero eskua jeansen atzeko patrikan sartu eta han gordetzen nituen txartel ugarietariko bat luzatu nion. Begi aurrean ipini eta, barra erdizka argitzen zuten lanpara gorrietako baten laguntzaz, irakurtzen hasi zen, ozen.

PROFESSEUR TOURÉ

Afrikar igarle ospetsua, bizkorra, eraginkorra eta bermekoa.

Esperientzia handia daukat magiaren arlo guztietan. Edonolako arazoak konpontzen ditut, korapilatsuak izanda ere: gaitz arruntak, gaixotasun kronikoak, depresioak, desamodioak... Begizkoak egin nahiz desegiten ditut, lana topatzen laguntzen dut, baita bikotekidea berreskuratzen ere, edo pertsona maiteak erakartzen, sexu-ezintasunak konpontzen, azterketak gainditzen, zoriona ematen...

%100eko bermea emaitzetan denbora gutxian.

Prezio oso ekonomikoak.

Bizimodu berria nahi baduzu, deitu: 619348491

–“Bizimodu berria nahi baduzu, deitu”, joder, ze ona!

Trufazko keinuaz so egin zidan tabernariak, betazalاک jasotzean inoiz oso ederrak izango ziren begi argiak erakutsiz eta, aldi berean, denborak horixkatutako hortzhagin ondo lerrokatuak agerian utziz.

–Benetan egiten duzu hau guztia? –jarraitu zuen.

–Guzti-guztia.

–Prezio oso ekonomikoan?

–Lehenengo kontsultak hogeı euro baino ez du baliio. Hortik aurrerakoa, segun eta, kasuaren eta beharren arabera.

–Magia afrikarra erabiltzen duzu, ezta?

–Noski.

–Nongoa zara?

–Gorom-Gorom-ekoa.

–Non arraio dago hori?

–Herri txiki bat da, Burkina Fasoko ipar muturrean dagoena, basamortuaren ondoan.

Atsoaren aurpegiera ikusita, agerian zegoen ez zela gauza izango nire herrialdea mapan gutxi gorabehera ere kokatzeko. Ohituta nengoen. Edonola, haren nahasmen keinu iragankorra berehala deuseztu zen eta berriz eman zion burla tonua bere ahoskerari.

–Horrelako mirariak egiteko gauza bazara, ziur etenik gabe jotzen duela zure sakelakoak.

–Oraindik gehiegi ez. Egun gutxi dira txartelak inprimatu ditudala, eta Bilbon zehar banatzen ari naiz. Baten batzuk utzi ahal dizkizut zure bezeroei emateko?

Bat-bateko txanpon hotsak eten zuen gure elkarrizketa. Atsoak txartela barra gainean utzi, nigandik aldentu eta makinako txinatarrari batere abegi onik adierazten ez zuen soa zuzendu zion. Txanpon erreka luzea ateratzen ari zitzaion une horretan, zarata handia eraginez. Gizonaren begitarte adieragabea ez zen, hala eta guzti, batere aldatu.

Orduan berriz joan zitzaidan arreta, ezinbestean, horma berde iluneko kartelerantz. Ez zegoen dudarik han jartzen zuenaz...

–Ez dakit zelan ostia egiten duten.

–Zer, barkatu?

–Ez dakidala zelan egiten duten txinatar puto horiek beti saria ateratzeko –bota zuen tabernariak, nire aurrera itzulita eta buruaz makina txanponjaleko gizona seinalatuz.

–Nik ere ez, baina jakin nahi nuke.

Andreak berehala antzeman zuen nire arreta ez zegoela makinan, beste nonbait baizik.

–Interesatuta zaude, ala? –itaundu zuen, bera ere hormara begira jarrita.

–Zeuk ipini duzu kartela?

–Jakina, neurea da taberna.

–Duda bat daukat: 2 jartzen du, ala atzeko 0a ez da ondo ikusten?

–2 jartzen du, *Supaldiak 2 eurotan*. Probatu nahi duzu, ala?

Zalantzezko unea izan nuen.

–Zupaldiak bi eurotan eta garagardoak bostetan? Ez da oso normala, ezta?

–Berdin dit normala den ala ez –kutsu zakarra berreskuratzen ari ziren haren hitzak–. Probatu nahi duzu, bai ala ez?

–Zera –esan nuen, disimuluz patrika ukitzen nuen bitartean txanpon solteren bat geratzen ote zitzaidan ikusteko–, zu zara... egiten dituen?

–Ni erretiratuta nago –bekainak jaso zituen, keinu harroko bat marraztuz bere musuan–. Aspaldiko bezero

berezienei baino ez dizkiet lantxoak egiten, noizean behin. Eta prezio horretan ez, noski.

Tentazioa izan nuen zenbatean galdetzeko, baina hobeto iritzi nion halakorik ez egiteari.

–Nor da, ba, kartelegoa? –itaundu nion.

–Nire loba, Bilbora duela gutxi etorri dena. Eta erabaki, kontxo, interesatzen zaizu, bai ala ez?

–Bai –bota nuen, poltsikoan txanpon bat edo beste baneukala ziurtatu ondoren–, zergatik ez?

Andreak karteletik hurbil, hormaren erdialdean zegoen leihoxka bat ireki eta haren alboko txirrina jo zuen.

–Kristi! –oihukatu zuen.

–Zer? –aditu zen zulotik.

–Libre zaude?

–Guztiz.

–Bezero bat bidali behar dizut.

–Ados.

Andreak leihoxka itxi eta keinu bat egin zidan buruaz, tabernako atea seinalatuz.

–Alboko ataritik sartu eta lehenengo pisura igo, zure zain dago eta.

–Kristi.

–Bai.

–Kristina gauza bera da?

–Jakina! –murmurikatu zuen andreak, eta gero bizkarra eman zidan, edalontzi lehorrak lehortzera itzultzen zela.

Hormako kartelari begiratu nion azken aldiz, eta ezin izan nuen galdera ekidin:

–Aizu –esan nion.

–Zer?

–Zalantza bat daukat, “Zupaldiak”, S-z barik, ez da Z-z idazten?

Burlazko irribarre bat azaldu zitzaion ezpainenetan atsoari.

–Hara gure afrikarra! –bota zidan–. Zuk irakatsi behar didazu niri idazten?

–Ez, noski.

Mespretxuzko keinu bat egin zidan eskuaz eta berriro ipini zuen arreta edalontzietan. Besterik ezean, kanporantz abiatzekoa egin nuen, baina bide erdian gelditu nintzen. Ia ahaztuta neukan toki hartara eramanez ninduen arrazoi nagusia.

–Aizu –esan nion atsoari hainbatgarrenez.

–Ostera ere? –burua desgogora jasoz.

–Azken-azken gauza: ez didazu esan txartel batzuk utzi ahal dizkizudan, bezeroen artean banatzeko. Asko eskertuko nizuke.

–Zelan eskertuko zenidake?

–Komisio baten bidez, bidaltzen didazun bezero bakoitzeko.

–Zenbatekoa?

–Ehuneko hamarrekoa. Ados?

Zalantza laburra izan zuen atsoak.

–Bezero bakoitzari ateratzen diozun guztiaren ehuneko hamarra?

–Ez, lehenengo ordainketaren portzentajea.

–Hogei euroren ehuneko hamarra? Adarra jo nahi didazu?

–Tira –esan nion, zalantza plantak eginez–; zu izate-agatik, kopuru guztiaren ehuneko hamarra emango dizut.

–Hala bada, konforme. Ekarri txartel batzuk.

Harengana itzuli eta pilotxo bat eman nion.

–Agurtu aurretik –esan nuen–, zelan daukazu izena?

–Loles, eta zuk?

Txartelak seinalatu nizkion begiradaz.

–Noski –esan zuen–, Toure, Toure profesorea.

–Halaxe da.

–Ederto. Segi gora, profesore, nire loba damutuan ere.

Keinu erdi atsegina egin zidan lehenengoz eta, agian, andre harekin aurrerantzean ondo moldatuko nintzela pentsatu nuen. Begitarte erlaxatuak ez zion, edonola, luze iraun. Izan ere, atera ailegatu nintzenerako gizon txinatarra barraren ertzean zegoen, txanpon pilo bat plastikozko edalontzi handi baten sartuta, truke eske. Ez nuen ondo aditu tabernariaren erantzuna, baina ez ziren hitz gozoak izan.

Ia itsumustuka eta belarrietan txistu makal baina etengabe bat aditzen nuela igo nituen eraikin zahar haren

lehenengo solairura zeramaten egurrezko eskailera ke-xatiak, goian zer topatuko ote nuen imajinatu nahian. Argi neukan kale hartan eta prezio haren truke ezin zitekeela gauza handirik espero; horregatik gora iritsi eta atea ireki zenean begiak berriro igurzteko bulkada izan nuen. Izan ere, ni baino gazteagoko emakumea neukan aurrean, ile gorri, luze eta kizkurtukoa, bular naharokoa, gerri-kurba nabarmenekoa, azal oso zurikoa... hain zuzen, edozein gizon afrikarrek amestuko lukeen emakume europarra. Gainera, irribarre atsegin batez egin zidan ongi etorria.

–*Sa kene!* –atera zitzaidan.

–Zer? –erantzun zuen, eta aho zabalik geratu nintzela konturatuta, berriz hitz egin zidan, eskuaz etxearen barrualdea seinalatuz–. Sartu, gizona.

–Aizu –esan nion, sinesgogor, karrajutik aurrera jarraitzen nion bitartean–, egia da tabernako kartelean ipintzen duena?

–Bai.

–Bi eurotan egiten dituzu zupaldiak?

–Bai –nire hitzei zerien mesfidantza kutsua antzemanda, luzatu egin zuen azalpena–. Promozio antzeko bat dela esan daiteke, Palankara ailegatu berria naiz eta bezeroak egin behar ditut. Gainera, krisian gaude, ezta?

–Hori diote, bai –zalantza bat etorri zitzaidan gogora–. Kaleko beste emakumeak ez zaizkizu haserretuko horren prezio merkea jartzeagatik?

–Izeko oso errespetatua da auzo honetan eta oraingoz ez dit inork protestarik egin. Gainera, esan dizudanez, hau hasierako promozioa baino ez da, luze barik igoko dugu tarifa.

–Aspalditik dago ipinita kartela?

–Uste dut gaur jarri duela izekok. Zeu zara lehenengo bezeroa.

–Ohore handia da niretzat –esan nion–. Baina berria zabaltzen denean gizon ilara luzea edukiko duzu, kalerainokoa.

–Hori espero dut.

–San Frantziskoko lagun afrikarrei kontatzen dienean ez dute sinetsiko. Nahi duzu abisatzea?

–Jakina, eskertuko dizut.

–Zelan? Komisioa emango didazu?

Komuneko atean gelditu eta beste irribarre batez so egin zidan.

–Bi euroren komisioa? Tira, gizona, kendu prakak eta garbitu zaitex apur bat, bai? Gero sukaldera etorri.

Txintxo obeditu nion. Komunean sartu, gerritik behera larrugorritu eta, dutxako ura apur bat epeldutakoan, nire zakil esnatzen hasia garbitzeari eman nion. Bien bitartean, neure burua aztertu nuen ispiluan. Oso nabarmena zen nire begiradan mariazko bizkotxoaren eragina, sekulako inozo aurpegia neukala iruditu zitzaidan, baina zoriontsua sentitzen nintzen amets moduko haren barruan.

–Txantxetan esan dut komisiarena –desenkusatu nintzen, ozen hitz eginez emakume ilegorriak sukaldetik entzun ziezadan.

–Noski.

–Baina gomendatuko diet lagunei.

–Mila esker.

–Kristi duzu izena, ezta?

–Horrela esaten dit izekok, baina nahiago dut Kristina esatea, edo Kris, nahi duzun bezala.

Dutxatik irten, ondo lehortu eta zalantza izan nuen prakak berriro jantzi, prakak ez baina zapatak bai, gal-tzontziloak bakarrik...

–Dena dela –jarraitu zuen–, zuk zerbait arraroa esan didazu atea ireki dizudanean.

–Bai, *Sa kene* –erantzun nion.

–Zer da?

–Afrikako narrasti txiki bat.

–Narrasti bat?

–Bai –hura arin argitu beharra sumatu nuen–, existitzen denik eta ederrena, gorri kolore ikusgarrikoa, zure ilea legez. Emakumezko oso politik ikusten ditugunean erabiltzen dugu berba hori.

–Hala bada, pozten naiz.

Sukaldearen sarreran nengoen jada, prakak, gal-tzontziloak eta zapatak eskuan. Txikia zen, komuna bezala, baina txukunak ziren biak; nire etxekoak baino askoz hobeak, behintzat, bai. Emakumea aulki baten

jesarrita zegoen zain, ukondo bat mahaian ezarririk zeukan eta atzamarrez bere adats gorri biziko kizkurrekin jolasten ari zen. Hormaren erdian eta txirrin baten aldamenean, leihoxka bat zegoen, beheko tabernakoarekin zulo baten bidez komunikatzen zena, ziurrenik. Sukaldean jakiak prestatu eta hara jaisteko erabiliko zutela begitandu zitzaidan.

Txistu makalak jarraitzen zuen nire buruan, baita barretasun sentsazio bitxi bat ere, baina gauza batek sentiera lasaigarri hura hondatu eta deseroso sentiarazi ninduen: sukaldeko sarreran ikusi ninduenetik, ilegorriak ez zuen ia begirada aldendu nire zakiletik. Zeukan tentetasun apurra galarazi eta guzti egin zion.

–Zeri begira zaude? –leporatu nion, azkenean.

–Ez dakit ba –bazirudien dibertitzen ari zela–, zure gorputz garai eta sendoarekin, komunetik entzun dizudan ahots baxu eta ozen horrekin eta afrikarra izanda... bestelako zerbaít espero nuen.

–Beltzon tramankuluarena mito bat da, ez sinetsi.

–Tira ba, hobe niretzat –ukondoa mahaitik kendu zuen–. Dena dela, guztira oso gizon galanta zara, inoiz esan dizute?

Emakume hark gaitasun berezia zeukan ni lotsarazteko. Erantzunik ezean, berak jarraitu zuen berbaz, harira etorriz.

–Ekarri duzu dirua, ezta? Bada utzi hor, mahai gainean, eta etorri.

Euro bateko txanpon bat eta hogei nahiz hamar zentimoko beste hainbat atera nituen praktetatik, emakumeak esandako lekuan utzi eta berarengana hurreratu nintzen.

Sa kene-k ez zuen segundo bat ere galdu alferreko luzamenduetan. Bat-batean nire zintzilikario lotsatiari gogor oratuta, astindu pare bat eman zizkion eta, atoa ten-tearazita, trebezia handiz jantzi zion mahaiko tiraderatik ateratako kondoi gorrixka bat, marrubi usain nabarmena zeukana. Mihiaren puntaz zupaldi pare bat eman zion eta une hartan halako hotzikara bat sentitu nuen, zin egingo bainuen bifidoa zela ahotik atera zitzaion zer hura. Baina hutsa iraun zuen zirrara hark, berehala ahoan berriz gorde eta nire zakil iratzarria bere ezpain mamitsuen artean estutu baitzuen. Aterpe haren epeltasuna sumatzean zalantzak berehala ahaztu eta paradisuaz bezala sentitu nintzen, eta ia zorabioak jo ninduen jarraian etorri ziren mugimendu bizkorren eraginez. Abiadura itzelaz egiten zituen sartu-irtenak ilegorriak, trebetasun handiz ere bai. “*Toure*”, esan nion orduan neure buruari “ez dakit guztiz drogatuta zauden, ametsetan ari zaren edo zer arraio gertatzen den, baina hau ez da batere normala, hemen zerbaitek huts egiten du”. Izan ere, ondo pentsatuz gero, hura egoera zentzugabea zen, erabat irreal: Bilboko Palankan emakume zuri, gazte, eder eta ezin atseginago bat, emakume puxka bat, zupaldia egiten ari zitzaion Afrikatik etorritako gizon beltz gixajo bati, zenbatean eta

bi eurotan. Nola zitekeen hura, non zegoen hutsa? Seguruenik marihuanak eragin zidan aurpegi zoragarri haren begitazioa eta, zeregina amaitutakoan, egia gordina azaleratuko zen eta ile-adats gorri haren azpitik atso zahar eta haginbako baten aurpegi beldurgarria azalduko zen.

Errealitatea edozein zelarik ere, ez zuen gehiegi iraun nire hausnarraldiak, segundo gutxikoa begitandu zitzaidan tarte labur baten ondoren, ilegorriak nire zakila ahotik bizkor atera baitzuen, hazi isurketarekin batera.

–Kito? –esan zuen burua jasoz, ia isekaz–. Minutu bat ere ez?

Bera zen artean, lehenengo momentutik ikusi nuen emakume gazte eta eder berbera, nire *Sa kene* preziatua.

–Denbora luzea neraman ezer egin gabe –esan nion, zizpuruka, neure burua justifikatzeko beharra sentituz.

–Lan gutxiago niretzat –esan zidan, kondoi betea kontuz erantzi eta korapilo batez lotzen zuen bitartean.

–Botako duzu?

–Jakina –une batez begitarte serioztu zitzaiola irudititu zitzaidan–. Zuk zeozertarako nahi duzu, ala?

–Ez, noski.

–Tira, gizona –berrito umore onez–, joan komunera garbitzera eta berriz etorri.

Oinak dutxan sartuta, uraren laztan epela sentituz, osterata ere aztertu nuen neure burua ispiluan. Lehen baino aurpegi are inozoagoa neukan, txistu etengabea

apurtxo bat ozenagoa izan arren bake handia sentiarazten zidan, eta egiazko amets baten barruan nengoela konbentzitu nintzen. Ez neukan, edonola ere, hartatik irteteko ezelako presarik.

Sukaldera itzuli nintzenean, emakume ilegorria infusio bat edaten ari zen. Hozkailu gaineko termoa seinalatu zidan.

–Nahi duzu pixka bat?

–Zer da?

–Menda eta erregaliza.

–Prezio barruan sartzen da?

–Noski, lehenengo bezeroa izateagatik.

Ezin nuen ekidin berba egiten zuen bakoitzean haren ezpain artera tinko begiratzea.

–Beharbada ondo etorriko zait tragoxka bat.

Aulki libre baten jesarri nintzen, ametsa goxo-goxo luzatzeko asmoz, baina Kristinak eman zidan ontziko infusioari usaina hartu nionerako hondatu egin zen dena. Izan ere, txirrin baten hots desatsegina aditu zen bat-batean sukaldean. Emakume ilegorria zutitu eta hormako leihoxka ireki zuen.

–Kristi! –aditu zen behetik.

–Zer?

–Libre zaude? –soaldi laburra eskaini zidan, keinu batez “sentitzen dut” adieraziz bezala.

–Bai.

–Ba beste bezero bat bidaliko dizut.

–Ados.

Ontzia mahai gainean utzi eta sukaldeko aterantz abiatu nintzen, emakumeak eskatu beharrik gabe.

–Beste egun baterako utzi beharko dugu infusioa –esan nion.

–Halaxe da –nire atzetik abiatu zen, eskuaz aurre-rantz jotzeko keinua eginda–. Baina oraindik ez didazu zure izena esan.

–Mahamoud –erantzun nion–, baina jende guztiak abizenez esaten dit: Toure.

–Toure –une bateko hausnarraldia egin zuen–. Gustatzen zait.

Karrajutik aterantz jarraitu genuen, lurreko parket irregularrak nire baitako kexuen oihartzuna egiten zuela. Ateko maratilaria eragitean jiratu egin nintzen.

–Nire txartela emango dizut –esan nion–; gordeko duzu, ezta?

–Jakina –irribarre egin zuen hura hartzeaz batera, eta mihia argi ikusi nion, azkenik. Guztiz arrunta zirudien, punta bakarrekoa. Segundo iragankor batez, *Sa kene*-ri masail gorrixkak laztandu eta musu emateko tentazioa izan nuen, beste inoiz ez ikusian ere. Baina beldur izan nintzen une eder hura hondatuko ote nuen eta erreprimitu egin nuen nire bulkada. Besterik gabe, agur esan eta eskaileretan behera abiatu nintzen.

–Nahi duzunean itzuli –esan zidan.

–Itzuliko naiz, ziur.

Eskailerak erdi ilunpetan jaitsi bitartean ezinbesteko hausnarketarekin jarraitu nuen. Zer egiten zuen halako neska batek...? Hain kontzentraturik nindoan nire gogoetan, ia tupust egin nuen atarira iristean kontrako bidean zetorren gizon isilarekin. Mozoilo Baltzako makina txanponez hustu berri zuen txinatarra zen eta “barkatu” esan nion. Berak, ostera, tutik esan barik, aurpegi adieragabea batere aldatzeke, eskaileretan gora jarraitu zuen, poltsikoetatik txintxin hotsa ateratzen zitzaiola.

Kalera irtetean, atarian baino argi gehiago egon arren, itsualdi sentsazioa izan nuen, gorri bitxi batez lagunduta. Kaleko hotsak ez ziren normalak, urpean bango bezala aditzen nituen autoen motorrak, tabernetako musika, jendearen elkarrizketak... eta pisuko askariak oroitu nintzen berriro. Autobus baten klaxonak apur bat bizkorrarazi eta gauza bat ekarri zidan gogora: Palankara eraman ninduen helburu nagusia. Orduan espaloiko prostituta aspertuen artetik nire txartelak banatzeari ekin nion, ergela sentiarazten ninduen irribarre saio batez, interes berezia ipintzen nuela emakume afrikarren albotik igarotzerakoan. Batzuek txartelak hartu ere ez zituzten egin, beste batzuk irakurtzen hasi eta lurrera bota zituzten birao batez, baten batek gorde egin zuen...

Lurrera botatako txartelak berreskuratzen saiatu nintzen, lau hankatan jarrita, eta ozta-ozta zutitu ondoren

aurrera jarraitu nuen, sentiera ezezagun bat nitaz jabe-
tzen zen bitartean: zera begitانتzen zitzaidan, lurretik
altxatutako gizon beltz eta baldar hura, Gorte kaletik
oinez zihoana, ez nintzela ni, edo hobe esanda, neu nin-
tzela baina film baten barruan bezala, eta ni neu, be-
netakoa, film hori ikusten ari nintzela kanpotik, beste
nonbaitetik. Bizkotxoari marihuana larregi erantsi ge-
niola ondorioztatu nuen, eman ziguten guztia, hain
zuzen.

Harrobi kaleko eskaileretatik behera jo nuen,
Gorte-ren paraleloa zen San Frantziskorantz, nire bizi-
lekurantz. Beheko kantoian aparkatuta zegoen Ertzain-
tzaren autotik ahalik eta urrunen pasatuz, berehala iri-
tsi nintzen nire atariaren ondora. Ilun zegoen jada,
udazkeneko egun laburrei zegokienez, baina ez zen be-
randuegi. Zalantza izan nuen zer egin: Abandoko tren
geltoki jendetsuraino jaitsi txartelak banatzen jarrai-
tzeko, ala pisura joan atsedean hartzera edo, ukondoak
balkoiko barandan ezarrita, behetik igarotzen zen Afrika
Txikia aztertzeraz? Abandora jaitea agian ez zen erabaki
zuzenena, nire orduko itxura San Frantziskon ibiltzeko
bai baina Bilboko beste edozein tokitarako ez baitzen
egokiena, are gutxiago igarle serio eta errespetagarria
eman nahi banuen. Ordu horretan, zegoen giro onare-
kin, pisukide gehienak kalean egongo zirela begitandu
zitzaidan, haiekin elkartzea ere beste aukera bat zen...
Egia esateko, ez neukan gogo handiegirik betiko plazako

betiko jarlekuetan tonto aurpegiak denbora ematen ego-
teko, halandaze etxera joateko erabakia hartu nuen.

Alaia eta kilikagarria, edo iluna eta mesfidagarria; horren era desberdinetara deskriba liteke giroa San Frantzisko auzoko Maiatzak 2 kalean Santu Guztien jai-bezperako gau honetan, segun eta noren begiek aztertzen duten eta begi horien jabeak zelako substantzien eraginpean dauden.

Karrikaren goiko alderdian, auzoari izena ematen dion San Frantzisko kalearekiko bidegurutzearen inguruan, egunean zehar magrebtar gizonezkoak izaten dira jaun eta jabe, arabiar estiloko jatetxe txiki eta ugarien inguruan pilatzen direnak. Maiatzak 2tik beherantz joz gero, ostera, lokalen izaera guztiz bestelakoa da eta arropa-denda modernoak, gay giroko klubak, after-hours-ak eta jatetxe chic samarrak dira nagusi. Oinezkoen itxura ere desberdina izaten da eta bertako jatorriko zu-riak izaten dira gehiengo.

Auzoko kamera finkoek erakusten dutenez, gaur, gauerdi pasa izanda, goiko alderdiko lokal gehienak itxita daude, behe aldeko dendak ere bai, jatetxeak azken ka-feak zerbitzatzen ari dira, eta pubak bezeroz betetzen doaz pixkanaka. Aldi berean, Ertzaintza nahiz Udaltzaingoaren autoek, ofizialek zein sekretuek, eten barik patruilatzen dute, Bilboko auzo honetan egun bat ere ez

baita igarotzen nola edo halako iskanbilarik gabe, eta asteburu nahiz jaiegunetan asko ugaritzen baitira arazoak.

Irekita dauden lokaletako bezero gehien-gehienak zuri arruntak dira, edari garestiak nahiz droga garestiakoak kontsumitzen dituztenak, baina espaloietan pilatzen direnetako asko afrikarrak dira, gehienbat Magreb aldekoak. Hauek ez daukate dirurik bizio garestietarako, eta, gainera, hainbat lokaletan sartzea debekatzen zaie. Hala ere, horien inguruan kokatzen dira, ezin jakin etsipenez, arduragabekeriak ala gorrotoz.

Bospasei mutil magrebtarreko taldetxo bat ikus daiteke pixka bat bereizita, Maiatzak 2ren beheko muturrean. Ibai bazterraren gainean dagoen talaia antzeko baten daude bildurik, burdinazko barandaren alboan. Gehienek adin nagusitasunaren inguruan ibiltzeko itxura daukate, baten batek agian hamazortzi urte ere ez dauzka. Plastikozko poltsa bat pasatzen diote elkarki eta txandaka eramaten dute mutur aldera haren edukia sakon arnasteko. Nabarmena da horren eragina haien aurpegietan. Inguruko lokaletan sartu-irtenean dabiltzan bezeroei so egiten diete batere disimulu nahiz adeitasunik gabe, eta ibaiak bestaldeko Zazpi Kaleetatik San Frantziskora igarotzen den Mesedeetako Zubi bakartia ere ez dute begi bistatik galtzen.

Halako baten, mutiko batek zerbait esan die gainerakoei, buruaz zubirantz seinalatuz. Gizon bakarti bat dator itsasadarraren bazter honetarantz eta nabarmena da

haren ibileran alkoholaren eragina. Mutiletako bi, abisua eman duena eta denetarik gazteena dirudiena, harantz abiatu dira eta gizonak zubia zeharkatzen amaitu eta Naxa kaira iritsi denean, bien artean bidea itxi eta, labanaz mehatxu eginik, erraz kendu diote diru-zorroa. Lapurrek ihesari eman diote astirik galtzeke, baina ia aldi berean auto baten sirenaren argi urdinek bete dute ibai bazterra. Polizia-auto sekretutik jaitsi diren bi gizonak euren atzetik korrika ikusi dituztenean lapurrak banatu egin dira; zaharrenak Maiatzak 2rantz itzuli eta bertako jendearen artean nahasturik desagertzea lortu du. Gazteenak, ostera, beste ihesbide bat hautatu eta kaitik jarraitu du lasterka, eremu bakarti eta ilunenaren babesa bilatuz. Atzerantz begiratu du, badirudi gauza izango dela poliziek baino arinago korrika eginda ihes egiteko, baina estropezu egin du lurlean dagoen gorputz baten kontra eta bere belaunek lurra jo dute. San Frantziskoko kamera finkoak kontrolatzen dituen gizonak gorputza fokatu du une batez, ez da batere mugitu, baliteke hilda egotea.

Bien bitartean, iheslaria arin zutitu eta arineketan jarraitu du, apur bat herrenka kolpearen eraginez. Atzerantz so egin du berriz, uniformerik gabeko bi poliziak gainera datozkiola ohartu da eta, bere burua ia harrapatuta ikusirik, eskuak ibai bazterreko barandan ezarri eta salto egin du uretara. Agian esnifatutako itsasgarriak igerian ez dakiela ahantzarazi dio, agian pentsatu gabeko ekintza desesperatua izan da. Kontua da beste aldeko

bazterrerantz bi besokada eman orduko gelditu eta uretatik eskuei eragiten hasi dela, laguntza erreguka. Jarraitzaileetako batek kaiko eskaileretatik ur-ertzera jaistekoa egin du, baina bere kideak gogor oratu dio besotik. Inguruan begiluzerik ez dagoela ziurtatu ondoren, hesiaren gainean ezarri dituzte ukondoak biek eta, arnasari buelta ematen dioten bitartean, ibaira begira geratu dira ezer egin barik. Lapur gazteak ez du denbora gehiegi iraun ur azalean. Eta kamerek jasotako irudiak monitorean aztertzen ari den gizonak ere ez du deus egin, zigarro bat piztu eta zupada luzea eman dio.